

B1 MAILA

3. ZATIA

BAT-BATEKO ELKARRIZKETA

Materiala eman (argazkien fitxa).

- Azterketariei argazkien fitxa bana eman eta egitekoa zein den irakurri. Elkarri begira egongo dira azterketariak, eta aztertzailea pixka bat atzerago jarriko da.
- Fitxa mahai gainean egongo da, azterketariek ondo ikusteko moduan. Minutu erdia izango dute argazkiak ikusteko eta pixka bat pentsatzeko.

Ikasleen jardunaren bitartean.

- Ikasleei egiten utzi, baina hizketan pasatzen duten denbora neurtu.
- Beharrezkoa bada, esku hartu, moztu, txanda aldatu...
- Horretarako beheko galdera osagarriak balia ditzakezu.

105. ARGAZKIA:

Lan-elkarrizketarako jantzi egokia

Zuen lagun batek lan-elkarrizketa izango du, baina ez daki zer jantzi itxura ona izateko. Jarraian, sei aukera emango zaizkizue. **Adostu** bion artean lan-elkarrizketarako jantzi egokienak zein diren eta zergatik. Horretarako, **aztertu** argazkietako jantziak nolakoak diren eta **deskribatu** nolako arropa eta nolako oinetakoak gomendatuko dizkiozuen lagunari lan-elkarrizketarako. Zuen erabakien **arrazoiak** eman.

GALDERA OSAGARRIAK

- Garrantzi handia ematen diozue itxurari. Zergatik?
- Zenbat denbora ematen duzue egunean jantziko duzuen aukeratzeko?
- Zein lanbidetan da garrantzitsua janzkera?



Takoidun zapatak



Jertsea



Praka bakeroak

Lan-elkarrizketarako jantzi egokia

Gorbata



Trajea



Oinetakoak

